

Hezkuntza-gastuak Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Produktu Gordinaren %5 hartu zuen

Hezkuntzako ondasun- eta zerbitzu-gastua 2.145 milioi eurora iritsi zen Euskal AEn, hau da, biztanleko 1.020 €ko gastura.

Euskal AEn, hezkuntzako ondasun- eta zerbitzu-gastuak 2.145 milioi eurora iritsi ziren, hau da, biztanleko 1.020 euroko gastura eta BPGaren %5 hartu zuen, EUSTATEk egindako 2001eko Hezkuntzaren Kontuen arabera. Gastu arruntak baliabideen %93,4 hartu zuten eta gainerako %6,6 kapital-eraketa gordinera bideratu zen.

Hezkuntzako gastu arruntaren partidarik garrantzitsuen "hezkuntza- eta prestakuntza-zerbitzuak" dira guztizko gastuaren %85,8 hartu zuten. Gainerako partidek eragin txikiagoa dute: jarduera osagarrien gastuek eta jantoki- eta garraio-gastuek guztizkoaren %2,1 eta %1,2 hartu zuten, hurrenez hurren; eskola-materiala eta liburuak erosteak eta hezkuntza-sistemaren administrazio orokorrak, berriz, guztizko gastuaren %1,2 eta %1,3 hartu zuten.

1. taula.- Guztizko Hezkuntza-gastua. Euskal AE. 2001 urtea (mila € eta %)

	GASTUAK GUZTIRA	%
GASTU ARRUNTA	2.002.875	93,4
- Hezkuntza- eta prestakuntza-zerbitzuak	1.839.804	85,8
-Jantokia	44.061	2,1
-Hezkuntza-sistemaren administrazio orokorra	27.785	1,3
-Garraioa	26.455	1,2
-Etxeek erositako liburuak eta eskola-materiala	25.618	1,2
- Hezkuntzako ikerkuntza eta berrikuntza	15.835	0,7
- Beste gastu arrunt batzuk	23.317	1,1
KAPITAL-ERAKETA GORDINA	142.581	6,6
GUZTIZKO HEZKUNTZA-GASTUA	2.145.456	100,0

Iturria: Eustat

Hezkuntza-gastuaren zuzeneko finantzaketarren dagokionez, finantzaketa publikoaren zatiak guztizkoaren %78,4 hartu zuen eta gainerako %21,6 finantzaketa pribatuaren gain geratu zen.

2. taula. Hezkuntza-gastuaren zuzeneko finantzaketa (%)

	FINANTZAKETA PUBLIKOA	FINANTZAKETA PRIBATUA
GASTU ARRUNTA	79,1	20,9
-Hezkuntza-zerbitzuak	82,9	17,1
-Gainerako jarduerak	36,2	63,8
GASTU ARRUNTA	68,2	31,8
GUZTIKO HEZKUNTZA-GASTUA	78,4	21,6

Iturria: Eustat

Baina finantzaketa publiko eta pribatuaren arteko erlazio hori ez da berdina gastuaren partida guztietan: hezkuntza-zerbitzuen gastuaren %83 finantzaketa publikokoa da, baina gainerako jarduera arruntena (garraioa, jantokia, liburuak eta materiala) batez ere pribatua da: %64 pribatukoa eta gainerako %36 publikoa.


Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila nabarmentzen da, zuzeneko finantzaketa publikoaren %78,6 bere gain hartzeagatik. Finantzaketa pribatuari dagokionez, familiak nabarmentzen dira, funts pribatuen %82,1 ekarri dutelako.

Instalazioak mantentzeko eta inbertsio berriei dagokienez, finantzaketa publikoak gastuaren %68 hartu zuen bere gain eta pribatuak, aldiz, %32.

Ikasleko gastu arrunta (inbertsioa kenduta) aldatu egiten da hezkuntza-maila eta/edo -zikloen eta hezkuntza-modalitateen arabera. Derrigorrezko hezkuntzak lehen hezkuntza eta derrigorrezko bigarren hezkuntza (DBH) hartzen ditu eta ikasleko 4.349 euroko gastu arrunta izan zuen. Derrigorrezkoa ez den hezkuntzan, aldiz, ikasleko gastu arrunta 3.206 eurokoa izan zen. Hezkuntza-modalitateetako ikasleko gastu arruntaren abanikoa honakoa da: unibertsitate-hezkuntzaren 2.977 eurotik (Ikerkuntzako zatia kenduta) lanbide heziketako 6.184 eurora arteko.

Arlo honetan zaila da herrialdeen datu homogeneo alderagarriak lortzea, baina ELGEk gehien erabiltzen duen parametroa da "ikasleko gastua ikastetxean" (bestelako zentroetan, esate baterako enpresetan eta administrazioan ematen den prestakuntza alde batera utzita). Hurrengo grafikoan ageri den bezala, ikasleko gastuari dagokionez, Euskal AE Kanadaren, Italiaren, Alemaniaren eta Frantziaren azpitik dago, baina era berean Estatuko guztizkoaren gainetik (%31) dago.

Ikasleko gastua ikastetxeetan EAPn (*). 2001.urtea



(*) Dolarren unitate baliokideak, erosteko ahalmenaren paritateak (EAP) erabiliz kalkulatuak

Iturria: ELGE eta Eustat

Ohar metodologikoa: Hezkuntzaren kontuak ez ditu hartzen zientzia- eta teknologia-ikerkuntzako jarduerak (hezkuntzako ikerkuntza eta berrikuntza salbu) eta horregatik ez dira kontuan hartu ikerkuntza-jarduerei dagozkien unibertsitate-irakasleen soldata-zatiak.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 01 75 00 Faxe: +34-945 01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Maite Ugarte Barcina

Tel.: +34-945 01 75 02. Faxe: +34-945 01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es